

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak herritarrentzako eta enpresetarako izapideen on-line katalogoa berri du

Langile publikoek Internetetik eskura daitekeen on-line izapideen inbentario propioa izango dute ere

Martes, 31 de marzo de 2015

Nafarroako herritar, enpresa eta profesionalak gaurtik aurrera navarra.es atarian Nafarroako Gobernuarekin izapideak egiteko kontuan hartu beharreko epe, urrats eta baldintzak aurkitzeko tresna hobe dute.

[On-line katalogoa](#) navarra.es atariaren barnean interes handiena

pizten duen edukietako bat da (2014an hiru milioi bisitatik gorajaso zituen). Orain egindako jardura bilaketak are gehiago errazten dituen berrikuntza batean datza: alde batetik, toki-erakunde eta langile publikoentzako izapide guztiak desagertzen dira; haiek langile publikoentzako berariazko [beste katalogo bat](#) osatuko dute; eta bestetik, bilaketa hobetzeko beste lau iragazki sortu dira.

Bilaketarako iragazkiak honako hauek dira: hartzailea (herritarrak edo enpresak eta profesionalak); izapide-mota; atxikita dagoen gaia; eta egoera, hau da, aktibo dagoen, epea itxi den edo deialdiaren zain dagoen.

Bederatzi izapide-motak ondorengoak dira: egiaztapenak, txartelak eta baimenak; laguntzak, bekak, sariak eta diru-laguntzak; ziurtagiriak eta erregistroak; jakinarazpenak, aitopenak eta administrazioarako bidalketak; ikastaroak, hezkuntza-zikloak eta prestakuntza; salaketak, erreklamazioak, errekursoak eta iradokizunak; enplegu publikoa; zergak eta tasak; eta gizarte-prestazioak.

Gaiari dagokionez (osasuna, hezkuntza, kultura...), Foru Administrazioaren departamentuko egiturari lotu gabeko gai orokorrak sortu dira, eta legealdi bakoitzean alda daitezke.

Berrikuntza hori katalogoaren diseinu grafikoan izandako aldaketa batean oinarritzen da ere; tresna intuitiboagoa izatera pasatzen da egin nahi den izapidea aurkitzeko bideak argitzean eta sinplifikatzean, bilaketa librearen edo iragazkien bidez. Hiru izapide aipagarri ematen dira beti, eta



Izapideetarako on-line katalogoaren irudi berria.

oharren atal bat ere gehitu da.

Izapideen % 80, on-line

Gaur egun, herritar, enpresa eta profesionalentzako izapideen katalogoak 1.105 izapide ditu, eta haietatik 885 Internetez bidera daitezke osorik; % 80. Beste 220 kasutan, leihatilatik pasa behar da (aurrez aurreko izapidea). 639 herritarrentzat dira eta 685 enpresa eta profesionalentzat. Haietako zenbait mistoak dira.

Izapide bakoitza dagokion fitxan azaltzen da, eta bertan ondorengo informazioa ematen da: izapidearen ezaugarriak eta epeak, beharrezko dokumentazioa, erreferentziazko araudia, harremanetarako datuak eta, ahal bada, on-line, telefono edo aurrez aurreko izapidea.

Herritarrentzako eta enpresetarako katalogoa Nafarroako Gobernuko herritarren arreta-sistemaren ardatz nagusia da, eta honako hauekin osatzen da:

Aurrez aurreko arreta:

Tuterako Nafarroako Gobernuaren [Erregistroko Bulegoak](#) eta herritarrentzako arreta-bulegoa,

Telefono bidezko arreta (astelehenetik ostiralera: 08:00etatik 19:00etara):

948 012 012. Tarifa finkoa duten telefono finko eta mugikorretarako (doan).

012. Tarifa finkoa ez duten Nafarroako telefono finkoetarako. Deia-aren kostua: 0,34 euro.

Internet bidezko arreta:

Posta elektronikoa navarra@navarra.es.

[Txat](#)-a gurekin zuzenean hitz egiteko edo edozer kontsultatzeko.

Twitter: @navarra y @nafarroagob

Facebook: Facebook.com/infonavarra

[Nafarroako Gobernuan sare sozialetan dituen beste kontu](#) batzuk

Nafarroako Gobernuko eta toki-erakundeetako langileen katalogoa

Nafarroako Gobernuako langileriaren katalogora eta toki-erakundearen zerbitzuen katalogora navarra.es webguneko honako helbide honen bidez irits daiteke: www.serviciosinternos.navarra.es, bai eta katalogo orokorretik ere. Izapideak bi maila handitan batzen ditu: Langileria eta Administrazio Publikoa

Langileriaren katalogoak giza baliabideen izapideak errazten ditu (lizentziak, baimenak, aseguruak, enplegua, bajak, lan-osasuna, ziurtagiriak...), eta langileentzako zerbitzuak pixkanaka jasotzeko bokazioa du online bidezko izapidea errazteko, eta, hala, haren kudeaketa erraztuz. Gehien erabiltzen den izapidea nominaren kontsulta da, eta langileria-arloan aipagarri moduan ageriko da.

Administrazio Publikoaren atalean, barneko zerbitzuak eskatu ahalko dira: itzulpena, argitalpena eta irudi instituzionala, artxiboa, informatika, ebaluazioa eta kalitatea, prestakuntza, ibilgailuak eta lekualdaketak, adibidez. Atal horretan sartzen dira ere, toki-erakundeetarako izapideak.